

Jaiotzak %1,9 murriztu ziren Euskal AEn 2012ko bigarren hiruhilekoan

Araban bakarrik gehitu dira jaiotzak

2012ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEn 5.250 haur jaio ziren, iazko aldi berean baino %1,9 gutxiago, Eustaten datuen arabera. Araban bakarrik eduki ditugu jaiotza gehiago: 855 haur guztira, %1,9ko hazkundera. Bizkaian 2.681 haur jaio ziren, %1,5eko jaitsiera; Gipuzkoan 1.774, %4,2 gutxiago, 2011ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

2012ko apiril, maiatz eta ekainean, ezkontzaz kanpoko jaiotzak %34,5 izan ziren; 2011ko hiruhileko berean %32,8. Araba, %35,4, batez bestekoaren gainetik ibili da; Gipuzkoan %34,1 eta Bizkaian %34,4.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2012ko bigarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.807, lehenengo haurrak izan ziren; 1.997 (%38) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; hirugarren eta ondorengoak, %8,5.

Jaiotzen %20an amak 30 urte baino gutxiago zituen

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %39,8. Talde horren ondotik, hurrengo goragoko taldea kokatu zen, hau da, 35-39 urte artekoa (%33,9). Askoz ehuneko txikiagoak dauzkate 25-29 urte bitartekoak (%14,2), 25etik beherakoak (%5,7) eta 40tik gorakoak (%6,5).

Ama ezkongabeen amatasun-adina ama izan direnen multzoarenaren azpitik dago; ama ezkongabeen %11,5 25 urtetik beherakoak baitziren, eta 25-29 urteen artekoak %18,8.


Amen %16 atzerritarra da

2012ko udaberrian Euskal AEn ama izandakoen %16,1 atzerritarrak ziren. Araba oso goitik dago, %22,3; Bizkaian %15,3 eta Gipuzkoan %14,2.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula

	2012ko 2. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2012ko 1. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2011ko 2. hiruhil.)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.250	100,0	4.965	100,0	5.350	100,0
Araba / Álava	855	16,3	799	16,1	839	15,7
Bizkaia	2.681	51,1	2.462	49,6	2.721	50,9
Gipuzkoa	1.714	32,6	1.704	34,3	1.790	33,5
Amaren adinaren arabera	5.250	100,0	4.965	100,0	5.350	100,0
≤ 24 urte	297	5,7	251	5,1	297	5,6
25 - 29 urte	748	14,2	694	14,0	825	15,4
30 - 34 urte	2.087	39,8	2.050	41,3	2.259	42,2
35 - 39 urte	1.779	33,9	1.648	33,2	1.681	31,4
≥ 40 urte	339	6,5	322	6,5	288	5,4
Amaren egoera zibilaren ara	5.250	100,0	4.965	100,0	5.350	100,0
Ezkondua	3.440	65,5	3.164	63,7	3.597	67,2
Ezkongabea	1.810	34,5	1.801	36,3	1.753	32,8
Amaren naziotasuna	5.250	100,0	4.965	100,0	5.350	100,0
Espainiarra	4.406	83,9	4.110	82,8	4.483	83,8
Atzerritarra	844	16,1	855	17,2	867	16,2
Jaiotza-hurrenkera	5.250	100,0	4.965	100,0	5.350	100,0
Lehenengoa	2.807	53,5	2.663	53,6	2.860	53,5
Bigarrena	1.997	38,0	1.884	37,9	2.044	38,2
Hirugarrena edo gehiago	446	8,5	418	8,4	446	8,3

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Euskal AEn erregistratuta dauden eta Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Hileroako datuak


Eustat. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Informazio gehiago:
[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa:

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

[Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago](#)
[Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua](#)